

I. XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO MINISTERIOA

12525 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.*

Hutsak aurkitu dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, zeina Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2015eko urriaren 31ko alean, 261 zenbakian, argitaratu baitzen; honen bidez, honako zuzenketa hauek egiten ditugu:

2. orrialdean, xedapen indargabetzaile bakarraren 8. zenbakian, hau dioen lekuan: «8. 15/2014 Legearen (...) 28. artikulua eta bederatzigarren xedapen iragankorra.», hau esan behar du: «8. 15/2014 Legearen (...) 28. artikulua.».

2. orrialdean, xedapen indargabetzaile bakarraren 13. zenbakian, hau dioen lekuan: «... Aurrekontu Orokorren Legearen...», hau esan behar du: «... Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen...».

27. orrialdean, e letraren bigarren lerroaldearen 6. eta 7. lerroetan, hau dioen lekuan: «... beste gurasoak, adoptatzaileak edo adopzio aurreko hartzaileak edo hartzaile iraunkorrak...», hau esan behar du: «... beste gurasoak, adoptatzaileak edo adopzio aurreko zaintzaileak edo hartzaile iraunkorrak...».

48. orrialdean, bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakiko 5. eta 6. lerroetan, hau dioen lekuan: «Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioei dagokienez, bigarren xedapen gehigarrian jasota dauden...», hau esan behar du: «Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioei dagokienez, apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan jasota dauden...».